Idazkaritza-Kontuhartzailetza

| 2025/10/09an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA. | SESIÓN EXTRAOARDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 09/10//2025. |
|---|---|

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2025eko urriaren 9an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ezohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Puri Regidor Varela.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 9 de octubre de 2025, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Puri Regidor Varela.

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2025/09/25ean egindako osoko bilkurako akta onartu da. .

## 2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2025eko urriaren 1era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

## 3.- 2025EKO LANPOSTU ZERRENDAREN ETA PLANTILLA ORGANIKOAREN HIRUGARREN ALDAKETA. EUSKARAZKO HIZKUNTZ ESKAKIZUNA ESLEITZEA LANPOSTU BERRIARI.

Lanpostu zerrenda aldatzeko proposamena aztertu da, honako hau:

a) OPIT (2) lanpostua amortizatzea.
b) HIRIGINTZA TEKNIKARIA (2) lanpostua sortzea.
c) BIBLIOTEKAKO ARDURADUNA lanpostuari eskatutako titulazioa aldatzea.

Aldaketa hori premiazkoa da, beharrezkoa baita lehenbailehen izatea hirigintzako teknikari bat, ITOP(2) lanpostuaren eginkizunak beteko dituena, eta, beraz, hori onartzea ezin izango da hurrengo urtera arte atzeratu.

Administrazio onaren printzipioak eskatzen du erakundea etengabe egokitu behar dela egon daitezkeen aldaketetara, ekonomia eta antolaketa errealitatea benetan islatuz.

Lanpostu zerrenda onartzea eta, ondorioz, baita bertan egindako aldaketak ere, Udalbatzarrari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 22.2.i) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskumen hori ezin da eskuordetu. Hori guztiori bat dator Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen (EDL 2016/32961) 25. artikuluarekin.

Jakin badakigu aldaketa-proposamena aldez aurretik negoziatu behar dela negoziazio-mahaian, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 34. eta 37.c) artikuluetan xedatutakoa aplikatuta, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 191.1.3 eta 195. artikuluekin bat etorriz.

Aldaketa-proposamenak udal-aurrekontuarekin batera onartutako plantillari eragiten dio neurri batean.

Osoko bilkuraren gai-zerrendan sartu aurretik, espedientea Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak aztertu du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (EDL 1985/8184) 20.1.c) artikuluarekin bat etorriz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 25.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Emandako diktamenaren arabera, EAJ/PNVko hiru zinegotziak abstenituta eta EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

**Lehenengoa.-** Udal honetako lanpostu zerrendaren hirugarren aldaketa onartzea, honako hau:

1. OPIT (2) lanpostua amortizatzea.
2. Hirigintza teknikari/Arkitekto tekniko lanposturako dotazio kopurua handitzea beste dotazio batekin. Ondorioz:
   a) Egungo HIRIGINTZA TEKNIKARIA HIRIGINTZA TEKNIKARIA (1) izango da aurrerantzean.
   b) HIRIGINTZA TEKNIKARIA (2) lanpostua sortzen da, A taldekoa, A2 azpitaldekoa, Administrazio bereziko eskalakoa, azpieskala teknikokoa, EMT klasekoa ondoren adieraziko diren ezaugarriekin, eta lanpostu horren deskripzio-fitxa onartzen da, espedientean jasota dagoena.

| Denominación | Lan harremana | Taldea | Eskala | Azpieskala | Klasea | Hizkuntz eskakizuna | | Derrigortasun data | Betetzeko modua | Titulazioa | Ezagutza bereziak (eskakizunak) | Dedikazioa | Destino osagarria | OE (1) | Lanaldia luzatzearen osagarria | Lanaldia | Oharrak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | Idatzizko ulermena/adierazmena | Ahozko ulermena/adierazmena | | | | | | | | | | |
| Hirigintza teknikaria (2) | F | A2 | AB | T | EMT | C1 | C1 | 30-07-1995 | LO | Arkitektura teknikoa edo baliokidea | B gidabaimena | Normala | 22 | 925 | | %100 | V |

3. LIBURUTEGIKO ARDURADUNA lanposturako eskatzen den titulazio akademikoa aldatzea, eta honakoa izatea eskatu beharrekoa: ingeniari teknikoa, unibertsitate-diplomaduna, arkitekto teknikoa, 3. mailako lanbide-heziketa edo baliokidea.

**Bigarrena.-**Udal honetako langileen plantilla aldatzea, honela:

1.- OPIT lanpostuetako bat kentzea.
2.- HIRIGINTZAKO TEKNIKARI plaza bat sortzea, A2 sailkapen-taldekoa, Administrazio Bereziko eskalakoa, Teknikarien azpieskalakoa, Erdi Mailako Teknikarien klasekoa.

**Hirugarrena.-** HIRGINTZA TEKNIKARIA (2) lanpostuari ondorengo derrigorrezko hizkuntza eskakizuna eta derrigorrezko data ezartzea.

- Irakurmena eta idazmena: C2.
- Ahozko ulermena eta adierazmena: C2.
- Derrigortasun data: 2025-10-09.

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

**Laugarrena.-**Langileen plantillaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta 15 egun baliodunko epea ematea erreklamazioak jartzeko eta iradokizunak egiteko. Epe hori igarota inolako erreklamaziorik aurkeztu gabe, aldaketa behin betiko bihurtuko da automatikoki.

**Bosgarrena.-** Lanpostu zerrendaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Plantillako plazak sortzeak dakarten aldaketek ondorioak izango dituzte aurreko puntuan jasotako plantillaren aldaketa behin betiko onartutzat jotzen den unetik aurrera. Gainerako aldaketek argitaratzen direnetik izango dituzte ondorioak.

BOTO AZALPENA:

Josu Ezkurdiak adierazi du, bere garaian, organigrama planteatu zenean, bere taldeak aurkako botoa eman bazuen ere, gaia presaka aurkeztu zela uste zutelako; oraingoan, gai teknikoak direla ikusita eta lehen emandako botoarekin bat etortzeagatik, abstenitu egingo direla.

## 4.- 2026. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO HASIERAKO ONARPENA.

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, EH BILDUko bertaratutako 7 zinegotziek alde bozkatuta, eta EAJ/PNVko bertaratutako 3 zinegotziek, aurka, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea 2026rako ordenantza fiskalen aldaketa I eranskinean jasotako moduan.

**Bigarrena.-** Hartutako erabakiak jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez, nahi duenak erreklamazioak edo oharrak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Hartutako erabakiak, ordenantzen aldaketak eta horien eranskinak behin betikoak izango dira, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean inolako erreklamaziorik egiten ez bada.

BOTO AZALPENA:

Josu Ezkurdia: Batzordean bi proposamen egin genituen. Bata kiroldegiko tasei buruzkoa zen, zeinak KPIaren arabera igotzea aurreikusten diren. Udalaren egoera ekonomikoa ona dela uste dugu, eta kirola sustatze aldera, tasa horiek ez igotzeko ahalegin bat egiteko aukera ematen du. Bestea, hondakinen bilketa-tasei buruzkoa zen, eta gure zenbakien arabera, Eskoriatza dagokiona baino % 22 gehiago ordaintzen ari da. Gaur egungo sistemaren arabera, Mankomunitateko udalerri batzuk duten bilketa-kostu handiagoa guztion artean banatzen da,

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

eta hori ez zaigu zuzena iruditzen. Jakinda ere gure proposamena ez dela onartuko, Udal honi ofizialki eskatzen diot, berba hauen bidez, gai hori Mankomunitatean aztertzeko, udal bakoitzean zerbitzuak duen benetako kostua aztertzeko, eta uste dugu % 22 hori, beharbada, motz geldituko dela. Mankomunitateak ez du datu argirik ematen eta espero dut Eskoriatzako Udalak lortuko duela jakitea zerbitzuak duen kostua Eskoriatzan.

Alkateak: Josu, % 22 gehiago ordaintzen dela diozu, eta ez dakit nondik atera dituzuen datu horiek, eta are gehiago, zuk esan bezala, Mankomunitateak orain arte datu zehatzik eman ez duenean. Zalantzarik gabe, datuak eskatuko dizkiogu Mankomunitateari, diozuna horrela den ala ez egiaztatu ahal izateko. Mankomunitateak egindako azken txostenaren arabera, eta zuek ere badaukazue txosten hori, Eskoriatza berari dagokiona baino gutxiago ordaintzen ari da, 468.000 euro inguru ordaintzen dugu eta 500.000 euro baino gehiago ordaindu beharko genituzke. Ez dakit nondik ateratzen duzuen % 22 hori. Bestalde, Mankomunitatearen hasierako helburuetako bat hondakinak biltzeko zerbitzua batera kudeatzea izan zen, eta udalerriz udalerri egiten hasten bagara, ez dakit nola kudeatuko lukeen zerbitzua.

Josu Ezkurdiak erantzun dio gai hau Arrasateko Osoko Bilkuran ere aztertu dela. Bere taldeak planteamendu bera egin zuela eta EH BILDUk datuak badaudela onartu zuela; Eskoriatzako Udalak Mankomunitatetik datu horiek lortzea nahi dutela, bere esanetan, posible delako udalerri bakoitzeko gastuak estrapolatzea. Amaitzeko, esan du eskatzen dutenarekin ez dutela solidarioak ez izaterik nahi, baizik eta zenbat ordaintzen den eta zergatik ordaintzen den jakin nahi dutela.

**5.- ESKORIATZAKO UDALAK ETA ARETXABALETAKO UDALAK ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ELKARREKIN KONTRATATZEA ORAINGO HONETAN. ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIORAKO DEIALDIA EGITEA.**

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako diktamena ikusita, Udalbatzarrak, aurrez eztabaidatuta, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

**LEHENENGOA.-** Eskoriatzako Udalak eta Aretxabaletako Udalak Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua oraingo honetan elkarrekin kontratatzeko espedientea onartzea. Kontratuari zenbatetsitako balioa UDAL BAKOITZARENTZAT, luzapenak barne, horrelakorik balego, honako hau da:

- Eskoriatzako Udala: 1.269.174,36 € (BEZik gabe).
- Aretxabaletako Udala: 1.702.380 € (BEZik gabe).

**BIGARRENA.-** Zerbitzu kontratu honen prozedura ireki bidezko kontratazioa arautuko duten baldintza administratiboen eta teknikoen agiriak onartzea.

**HIRUGARRENA.-** Kontratu hau prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura hastea, eta dagokion iragarkia kontratazio organo honen kontratatzailearen profilean argitaratzeko agintzea, nahi duenak egoki iritzitako proposamenak 30 eguneko epean aurkez ditzan.

**LAUGARRENA.-** 440.000 euroko gastua onartzea, 2026ko aurrekontuko 5.00300.227.231.10.19.2026 aurrekontu-aplikazioaren kargura. Kopuru hori bat dator Eskoriatzako Udaleko kontratuaren urteko balio zenbatetsiarekin eta dagokion BEZarekin.

**6.- ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENA LUZATZEA.**

2022ko otsailaren 22an, Udalbatzarrak erabaki zuen Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko lankidetza-hitzarmena formalizatzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Aipatutako hitzarmenaren hamalaugarren klausulan aurreikusitakoarekin bat etorriz, sinatutako egunean indarrean jarri bazen ere, 2021eko urriaren 1etik aurrera izan zituen ondorio ekonomikoak, eta 2023ko abenduaren 31ra arte egon zen indarrean. Halaber, honako hauek ere jaso ziren:

a) Hitzarmen hori berariaz luza daitekeela, amaitzen denean, urte natural batez. Hitzarmenaren eta haren luzapenen gehieneko iraupena ezin izango da lau urtetik gorakoa izan, arauz epe luzeagoa aurreikusten ez bada.

b) Hitzarmena sinatu duten alderdiek aho batez adostu ahal izango dutela, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu baino lehen, hitzarmena beste lau urtez luzatzea edo azkentzea.

Hitzarmenaren hamalaugarren klausulan xedatutakoaren arabera, alderdiek erabaki zuten hitzarmenaren ondorio ekonomikoak lau urteko hasierako indarraldia agortu arte luzatzea, eta epe hori 2025eko irailaren 30ean amaitu da.

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

Hamalaugarren klausularen arabera, eta hasierako 4 urteko indarraldia agortuta, egokitzat jotzen da hitzarmena beste urtebetez luzatzea, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era arte.

Gaia Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzailean aztertu ondoren, eta egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, bertaratutako zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Etxez etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmena beste urtebetez LUZATZEA, 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 30era arte.

**Bigarrena.- Luzapena sinatzeko ahalmena ematea Alkate-Udalburuari.**

## 7.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:10ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

### ERANSKINA-ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA

**ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.**

- Ondorengo karga-tasa % 2,7 igotzea:

Hiri izaerakoa-GAINONTZEKO GUNEAK: % 0,24593tik % 0,25257ra.

Gainerakoak ez, indarrean dauden tasak Foru Aginduak baimendutako handienak direlako.

**UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ORDAINARAZTEKO ZENBAIT AHALMEN ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

Udal koefizientea: Egungoa mantentzea: 2,2

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

Gehieneko kuota ez duten kuotak % 2,7 igo.

**HIRI-LURREN BALIO IGOERAREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA**

Indarrean dagoenarekin jarraitu.

**ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA**

- Tasa: indarrean dagoenarekin jarraitu.
- 5.3.2. BIS idatz-zatia honela aldatzea:

Honako hau dioen lekuan:

5.3.2.BIS- Zerga honetan emango diren hobariak -birgaitze obratarako Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza eskatu dutenei buruz 5.3.3.2 eta 5.3.3.3 puntuetan jasotakoak izan ezik- eskatzeko epea sei hilabetekoa izango da kitapena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Birgaitze obratarako Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza eskatu dutenei buruz 5.3.3.2 eta 5.3.3.3 puntuetan jasotako hobariak eskatzeko epea 3 hilabetekoa izango da Eusko Jaurlaritzak obra ziurtagiria ematen duen egunetik kontatzen hasita.

Honako hau esatea:

5.3.2.BIS- Zerga honetan emango diren hobariak -birgaitze obratarako Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza eskatu dutenei buruz 5.3.3.2, 5.3.3.3 eta 5.3.3.10 puntuetan jasotakoak izan ezik- eskatzeko epea sei hilabetekoa izango da kitapena jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Birgaitze obratarako Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza eskatu dutenei buruz 5.3.3.2 5.3.3.3 eta 5.3.3.10 puntuetan jasotako hobariak eskatzeko epea 3 hilabetekoa izango da Eusko Jaurlaritzak obra ziurtagiria ematen duen egunetik kontatzen hasita.

**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA**

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

Tasa guztiak % 2,7 igotzea, honako hauek izan ezik:

**1.- Hirigintza lizentziak emateagatiko tasak:**

Obra lizentzia emateagatiko tasa bere horretan uztea, eta, gainontzekoak, % 2,7 igotzea.

**Lehenengoa.-** Hirigintza lizentziak emateagatiko tasak, ondorengo hauek izatea:

Obra lizentziak:

1. Etxebizitzatarako lizentziak: Obra aurrekontuaren % 0,31
2. Industria eta zerbitzutarako lizentziak: Obra aurrekontuaren % 0,31

Lizentzia luzatuz gero, eta eskaera egiten denean hasierako erabakian adierazitako epeak amaitu ez badira, ordaindu beharreko kuota hirigintzako lizentziagatiko tasaren % 50 izango da.

Etxebizitza lehenengoz erabili edo okupatzeko lizentzia:

| | € |
|---|---|
| - Etxebizitza bakoitzeko. | |
| 5 etxebizitza arte | 56,35 |
| 6. etxebizitzatik aurrera | 28,15 |
| - Etxebizitza adosatu bakoitzeko | 360,20 |
| - Familia bakarreko etxebizitzak –nekazaritza ustiapenik gabeak– | 414,25 |
| - Bi familiako etxebizitzak –nekazaritza ustiapenik gabeak– | 619,50 |
| - Nekazaritza ustiapena duen eraikineko etxebizitza bakoitzeko | 28,20 |

Partzelak banandu eta bateratzeko lizentzia:

- Hiri lurretan: 264 €
- Landa lurretan: 80 €

**2.- HIRUGARREN BATEK ESKATUTA UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN DOKUMENTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK**

Fotokopiena honela aldatzea:

| |
|---|
| Fotokopiak (bibliotekan egingo dira bakarrik). |

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

| | |
|---|---|
| DIN A-4 (zuri beltzean): kopia bakoitza | 0,10 € |
| DIN A-4 (koloretan) : kopia bakoitzeko | 0,20 |
| DIN A-3 zuri beltzean : kopia bakoitza | 0,20 € |
| DIN A-3 koloretan: kopia bakoitza | 0,40 |
| H@ZIn honakoak egingo dira:<br>DIN A-4 eta konpultsa: 5 ale baino gehiagoko konpultsetarako kopiak udal zerbitzuan bertan egin beharko dira. Bakoitza | 0,20 € |

**3.- UDAL HILERRIKO ZERBITZUENGATIKO TASA**

Honako hau dioen lekuan:

Interesdunak hala eskatuta eta Udalaren baimenarekin jabetza partikularrekoak diren panteoietan beste zerbitzu batzuk ematea (hondakinak ateratzea, gorpuzkiak/errautsak bertan gordetzea, garbitzea, obrak egitea, mantentzea, etab.) (lanegunetan, larunbatetan izan ezik).

Honako hau esatea:

Interesdunak hala eskatuta eta Udalaren baimenarekin jabetza partikularreko panteoietan edota emakidapeko hilobietan beste zerbitzu batzuk ematea (hondakinak ateratzea, gorpuzkiak/errautsak bertan gordetzea, garbitzea, obrak egitea, mantentzea, etab.) (lanegunetan, larunbatetan izan ezik).

**4.- Hiri hondakin solidoak jaso, garraiatu eta birrintzeagatiko Mankomunitateko zerbitzuaren tasa. % 0,54 igotzea.**

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

**5.- Etxez etxeko laguntza zerbitzua emateagatiko tasa. Indarrean dagoenarekin jarraitu.**

**6.- ZUBIATEKO LABEAN ZERBITZUAK (bisita gidatuak eta tailerrak) EMATEAGATIKO TASA. Indarrean dagoenarekin jarraitu.**

**5.- Udal museo-eskola zerbitzuaren tasa. KENDU.**

**6.- Udalak deitutako lanpostuetara izangaiei zerbitzuak emateagatiko tasa. Indarrean dagoenarekin jarraitu.**

**UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

**Tasa guztiak % 2,7 igo.**

4. eranskinean honakoa gehitu: i) Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegiko garaje plazaren erabilera pribatiboa: 57 € hileko

**UDAL ONDASUNAK ERABILTZEAREN PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

% 2,7ko igoera

Tarifa berri bat gehitzea: 3 x 3ko karpa bakoitza: 60 € + % 2,7

**ESKORIATZAKO UDALAK ANTOLATUTAKO JARDUERA EDOTA EKITALDI SOZIOKULTURALETARA JOATEGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOA**

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

| | |
|---|---|
| Zaldibar antzokian umeentzat antolatutako ikuskizunak 4 € | |
| Zaldibar antzokian nagusientzat antolatutako ikuskizunak 6 € | |

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

## 1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 25/09/2025 .

## 2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 1/10/2025

## 3.- TERCERA MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO Y DE LA PLANTILLA ORGÁNICA DE 2025. ASIGNACION DE PERFIL LINGÜÍSTICO DE EUSKERA A PUESTO DE NUEVA CREACIÓN.

Examinada la propuesta de modificación de la RPT consistente en:

d) Amortizar el puesto de ITOP2
e) Crear el puesto de TECNICO/A DE URBANISMO 2
f) Modificación la titulación exigida al puesto de RESPONSABLE DE BIBLIOTECA

Resultando que la citada modificación reviste carácter urgente por cuanto que es necesario disponer en la mayor brevedad posible de un/a técnico/a de urbanismo que atienda las funciones del anterior puesto de ITOP2 , no pudiendo demorarse, por tanto, su aprobación hasta el próximo ejercicio.

Resultando que el principio de buena administración exige una adaptación continua de la organización a los cambios producidos de forma que la misma reproduzca una imagen fiel de la realidad económica y organizativa subyacente.

Considerando que la aprobación de la RPT y, consecuentemente, de sus modificaciones corresponde al ayuntamiento pleno, en virtud de lo previsto en el artículo 22.2.i) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local (EDL 1985/8184) -LRBRL-, sin que tal atribución pueda ser objeto de delegación. Todo ello en concordancia con el artículo 25 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi (EDL 2016/32961) -LILE-.

Conocido que la propuesta de modificación ha de ser objeto de negociación previa en la mesa de negociación, por aplicación de lo dispuesto en los artículos 34 y 37.c) del texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre -TREBEP-, en concordancia con los artículos 191.1.3 y 195 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco .

Considerando que la propuesta de modificación afecta en parte a la plantilla aprobada junto al Presupuesto municipal.

Considerando que, con carácter previo a su inclusión en el orden del día del pleno, el expediente ha sido sometido a estudio de la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, en cumplimiento de lo dispuesto por el artículo el el artículo 25.1 de la Ley 2/2016,

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi -LILE-, en concordancia con los artículos 20.1.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local (EDL 1985/8184)

De conformidad con el dictamen emitido y con la abstención de los tres concejales presentes de EAJ/PNV y el voto favorable de los 7 concejales presentes de EH BILDU, el Pleno ACUERDA:

**Primero.** APROBAR la tercera modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de este Ayuntamiento en los siguientes términos:

4. Acordar la amortización del puesto de ITOP 2.

5. Ampliar las dotaciones del puesto de Técnico Urbanismo/Arquitecto Técnico con otra dotación. En consecuencia:

    a) El actual puesto de TECNICO/A DE URBANISMO pasa a denominarse TECNICO/A DE URBANISMO 1.
    b) Se crea un puesto de TECNICO/A DE URBANISMO 2, Grupo A, Subgrupo A2, Escala administración Especial , Subescala Técnica, Clase TM con la siguientes características y se aprueba la ficha descriptiva de dicho puesto, que consta en expediente.

| Denominación | Relación | Grupo | Escala | Subescala | Clase | Perfil lingüístico | | Fecha precept. | F. Prov. | Titulación | Conocimien.especiales (requisitos) | Dedicación | C. Dest | OE (1) | Compl. ampliación jornada | Jornada | Observaciones |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | Comp./expr. escrita | Comp./expr oral | | | | | | | | | | |
| Técnico/a de urbanismo 2 | F | A2 | AE | T | TM | C2 | C2 | 9/10/2025 | CG | Grado Arquitectura tecnica o equivalente | Carnet conducir B | Normal | 22 | 925 | | 100% | V |

6. Modificar la titulación académica exigida en el puesto de RESPONSABLE DE BIBLIOTECA, abriéndolo a la titulación de Ingeniero técnico, Diplomado Universitario, Arquitecto Técnico, Formación profesional de 3º grado o equivalente.

**Segundo.** Modificar la plantilla de personal de este Ayuntamiento en los siguientes términos:

1.- Suprimir una de las plazas de ITOP
2.- Crear una plaza de TECNICO/A DE URBANISMO , encuadrada en el grupo de clasificación A2 y perteneciente a la escala de Administración Especial, subescala Técnica, clase Técnicos/as Medios.

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

**Tercero.** Asignar el puesto TECNICO/A DE URBANISMO 2 el siguiente perfil lingüístico preceptivo y fecha de preceptividad:

- Lectura y escritura: C2.
- Comprensión y expresión oral: C2.
- Fecha de preceptividad: 09-10-2025.

**Cuarto.** Publicar la modificación de la plantilla de personal en el Boletín Oficial de Gipuzkoa por plazo de 15 días hábiles, durante los cuales se admitirán reclamaciones y sugerencias. Transcurrido el mismo sin que se haya producido reclamación alguna, la modificación se entenderá automáticamente elevada a definitiva.

**Quinto.** Publicar la modificación de la relación de puestos de trabajo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Los cambios que conllevan la creación de plazas de plantilla tendrán efectos desde el momento en que se considere definitivamente aprobada la modificación de plantilla que se recoge en el punto anterior. Los restantes cambios, tendrán efectos desde su publicación.

EXPLICACIONES DEL VOTO:

Josu Ezkurdia manifiesta que si bien en su día, cuando se planteó el organigrama, su grupo voto en contra porque entendieron que el asunto se había presentado de forma precipitada, en esta ocasión, al ver que son cuestiones técnicas y por ser congruentes con el voto antes emitido, se abstendrán.

## 4.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LAS ORDENANZAS FISCALES PARA 2026.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión informativa de Organización y Hacienda, el Pleno, con el voto a favor de los 7 concejales presentes de EHBILDU y el voto en contra de los 3 concejales presentes de EAJ/PNV, ACUERDA:

**Primero:** Aprobar inicialmente para 2026 la modificación de las ordenanzas fiscales en los términos previstos en el Anexo I.

**Segundo:** Someter a información pública por el plazo de 30 días hábiles los acuerdos adoptados a efectos de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse.

**Tercero:** Los acuerdos adoptados y las modificaciones de Ordenanzas y sus Anexos devengarán definitivos sin necesidad de nuevo acuerdo si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna.

EXPLICACIONES DE VOTO:

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

Josu Ezkurdia: En la comisión planteamos dos propuestas. Una era relativa a las tasas del polideportivo, que se plantean incrementar con el IPC. Consideramos que la situación económica del Ayuntamiento es buena y le permite hacer un esfuerzo para no subir esas tasas en aras a fomentar la práctica del deporte. La otra era en relación a las tasas de recogida de residuos, que según nuestros números Eskoriatza está pagando un 22% más de lo que le corresponde. Según el sistema actual, el mayor costo de recogida que hay en algunos municipios de la Mancomunidad se reparte entre todos y eso no nos parece correcto. Atendiendo que nuestra propuesta no se va a aceptar , si pido oficialmente a este Ayuntamiento a través de esta intervención que se analice dicho asunto en la Mancomunidad, que se analice el coste real del servicio en cada uno de los municipios, pensamos que ese 22% igual queda hasta corto. La Mancomunidad no da datos claros y espero que este Ayuntamiento pueda conseguir los datos concretos del costo del servicio en el municipio de Eskoriatza. Por lo que he comentado,

El Alcalde: Josu, dices que se paga un 22% más, y no sé de donde habéis sacado esos datos, y más, como tu bien has dicho, cuando hasta ahora la Mancomunidad no ha dado datos concretos. No hay duda de que pediremos datos a la Mancomunidad para poder constatar si lo que dices es así o no. Según el último informe emitido desde la Mancomunidad, y vosotros disponéis del mismo, Eskoriatza eta pagando menos de lo que le corresponde; pagamos alrededor de 468.000 euros y nos correspondería pagar más de 500.000 euros. No se de donde sacáis ese 22%. Y por otro lado, uno de los objetivos iniciales de la Mancomunidad fue la gestión conjunta del servicio de recogida de residuos, y si empezamos municipio por municipio no se cómo gestionaría el servicio.

Josu Ezkurdia le responde que este asunto se ha tratado también en el Pleno de Arrasate. Que su grupo hizo el mismo planteamiento y que EHBILDU reconoció que hay datos; que lo que quieren es que el Ayuntamiento de Eskoriaza consiga de la Mancomunidad esos datos, porque, dice, es posible extrapolar los gastos de cada municipio. Termina su intervención diciendo que con lo que piden no pretenden no ser solidarios, sino que lo que quieren en saber cuánto se paga y porqué se paga.

**5.- CONTRATACIÓN CONJUNTA ESPORÁDICA DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA Y DEL AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA DE LA PRESTACIÓN**

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

## DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO: APROBACIÓN DEL EXPEDIENTE Y CONVOCATORIA DE LA LICITACIÓN.

Visto el Dictamen de la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes, el Pleno de esta Corporación, previa deliberación y el voto a favor de todos los corporativos presentes, A**CUERDA:**

**PRIMERO**.- Aprobar el expediente de contratación conjunta esporádica del Ayuntamiento de Eskoriatza y del Ayuntamiento de Aretxabaleta de prestación del servicio de AYUDA A DOMICILIO; con un valor estimado por cada ENTIDAD CONTRATANTE, incluidas prorrogas si se produjeran, de:

- Ayuntamiento Eskoriatza: 1.269.174,36 € (IVA excluido)
- Ayuntamiento de Aretxabaleta:1.702.380 € (IVA excluido)

**SEGUNDO**.- Aprobar los Pliegos Administrativos y Técnicos reguladores de la contratación mediante procedimiento abierto del presente contrato de servicios.

**TERCERO**.- Proceder a la apertura del procedimiento de adjudicación del presente contrato por procedimiento abierto, dando orden de que se proceda a la publicación del pertinente anuncio en el Perfil del Contratante, para que dentro del plazo correspondiente de 30 días se presenten las proposiciones que se estimen pertinentes.

**CUARTO**.- Aprobar el gasto por importe de 439.980,44 euros con cargo a la aplicación presupuestaria 5.00300.227.231.10.19.2026 del Presupuesto 2026, cantidad que se corresponde con el valor estimado anual del contrato en el Ayuntamiento de Eskoriatza más el IVA correspondiente.

## 6.- PRORROGA DEL CONVENIO FORMALIZADO CON LA DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA PARA LA FINANCIACION DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO

Con fecha 22 de febrero de 2022 el Pleno del Ayuntamiento acordó formalizar con la Diputación Foral de Gipuzkoa un convenio de colaboración para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

De conformidad con lo previsto en la cláusula decimocuarta del citado convenio, si bien entró en vigor el día de su firma, surtió efectos económicos desde el 1 de octubre de 2021 y su vigencia se extendió hasta el 31 de diciembre de 2023. Asimismo, se contempló:

a) Que dicho convenio podría ser prorrogado de forma expresa a su finalización por período de un año natural. La duración máxima del convenio y sus prórrogas no podrá ser superior a cuatro años salvo que normativamente se previera un plazo superior.

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

b) Que las partes firmantes del convenio podrían acordar unánimemente y antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

En base a lo dispuesto en la cláusula decimocuarta del convenio, las partes acordaron extender los efectos económicos del convenio hasta agotar su vigencia inicial de cuatro años, venciendo dicho plazo el 30 de septiembre de 2025.

De conformidad con la claúsula decimocuarta, y agotada la vigencia inicial de 4 años, se estima procedente prorrogar el convenio por un año adicional, desde el 1 de octubre de 2025 hasta el 30 de setiembre de 2026.

Tratado el asunto en el seno de la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes y de conformidad con la propuesta elevada, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes ACUERDA:

**Primero:** PRORROGAR por un año adicional**,** desde el 1 de octubre de 2025 hasta el 30 de setiembre de 2026 hasta el al 30 de setiembre de 2026 , el convenio formalizado con la Diputación Foral de Gipuzkoa para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

**Segundo:** Facultar al Alcalde-Presidente para la firma del documento de prórroga.

## 7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:10 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**

### ANEXO- MODIFICACIONES ORDENANZAS FISCALES

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES**

- Subir el tipo de gravamen siguiente en un 2,7 %:

De naturaleza urbana- RESTOS DE ZONAS. De a % 0,24593 a 0,25257

Resto no procede porque el tipo vigente es el máximo permitido por la Norma Foral

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE DETERMINADAS FACULTADES PARA LA EXACCION DEL IMPUESTO SOBRE ACTIVIDAES ECONÓMICAS EN EL MUNICIPIO**

Coeficiente municipal: Mantener el actual: 2,2

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA.**

Incrementar en un 2,7 % las cuotas que no estén en el máximo

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE INCREMENTO DEL VALOR DE LOS TERRENOS**

Mantener lo vigente.

**ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS**

- Tipo: Mantener lo vigente
- Modificar en los siguientes términos el apartado 5.3.2. BIS

Donde dice:

5.3.2. BIS - Las bonificaciones que se otorgan en este Impuesto, salvo las previstas en el punto 5.3.3.2 y 5.3.3.3. relativas a obras de rehabilitación acogidas a ayudas del Gobierno Vasco, deberán solicitarse dentro del plazo de 6 meses a contar desde la notificación de la liquidación.
El plazo de solicitud de las bonificaciones previstas en los puntos 5.3.3.2 y 5.3.3.3. relativas a obras de rehabilitación acogidas a ayudas del Gobierno Vasco será de 3 meses a contar desde la fecha de la certificación de obras expedida por el Gobierno Vasco.

Que diga:

5.3.2. BIS - Las bonificaciones que se otorgan en este Impuesto, salvo las previstas en el punto 5.3.3.2, 5.3.3.3 y 5.3.3.10 relativas a obras de rehabilitación acogidas a ayu-

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

das del Gobierno Vasco, deberán solicitarse dentro del plazo de 6 meses a contar desde la notificación de la liquidación.

El plazo de solicitud de las bonificaciones previstas en los puntos 5.3.3.2, 5.3.3.3 y 5.3.3.10 relativas a obras de rehabilitación acogidas a ayudas del Gobierno Vasco será de 3 meses a contar desde la fecha de la certificación de obras expedida por el Gobierno Vasco

**ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y *REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS***

Incrementar todas las tasas en un 2,7 % con las siguientes excepciones

**1.- Tasa por actividad de otorgamiento de licencias urbanísticas:**

Mantener la tasa por concesión de licencia de obras y el resto incrementar en un 2,7%

**Primero**: Establecer como tasas para el otorgamiento de licencias urbanísticas las que a continuación se señalan:

Licencia de obras:

1. Licencias de viviendas: **0**,31% del presupuesto de obra.
2. Licencias para industrias y servicios: 0,31% del presupuesto de obra

En los casos de prórroga de licencia y siempre que cuando se curse la solicitud no se hayan concluido los plazos señalados en la resolución de concesión inicial , la cuota a abonar será del 50% de la tasa por licencia urbanística

Licencia de primera utilización u ocupación:

| | € | |
|---|---|---|
| - Por vivienda | | |
| Hasta 5 viviendas | ~~54,85~~ | 56,35 |
| A partir de la 6º vivienda | ~~27,41~~ | 28,15 |
| - Por vivienda adosada | ~~350,70~~ | 360,20 |
| - Por edificio unifamiliar no vinculado a explotación agropecuaria | ~~403,35~~ | 414,25 |
| - Por edificio bifamiliar no vinculado a explotación agropecuaria | ~~603,20~~ | 619,50 |
| - Por cada vivienda de edificio vinculado a explotación agropecuaria | ~~27,42~~ | 28,20 |

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

Licencia de segregación y agrupación de parcelas:

- En suelo Urbano: ~~257 €~~ 264 €
- En suelo Rústico: ~~77 €~~ 80 €

**2.- TASAS POR DOCUMENTOS QUE EXPIDAN O DE QUE ENTIENDAN LA ADMINISTRACIÓN Ó LAS AUTORIDADES MUNICIPALES A INSTANCIA DE PARTE**

En cuanto a las fotocopias, modificar en los siguientes términos:

| | |
|---|---|
| Fotocopias (sólo se harán en la biblioteca). | |
| DIN A-4 (blanco y negro): cada copia | 0,10 € |
| DIN A-4 (color) : cada copia | 0,20 |
| DIN A-3 blanco y negro : Cada copia | 0,20 € |
| DIN A-3 color: Cada copia | 0,40 |
| Se hará en el servicio H@ZI:<br>DIN A-4 y compulsa: Para compulsas de más de 5 unidades las copias deberán de ser realizadas en el propio servicio municipal. Por unidad | 0,20 € |

**3.- TASA POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS EN EL CEMENTERIO MUNICIPAL**

Donde dice:

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

Por prestación de otros servicios (vaciado de restos, deposito de restos/cenizas, limpieza, obras, mantenimiento, etc.) realizados en panteones propiedad de particulares a petición de los interesados y previa autorización del Ayuntamiento. (en días laborables excepto sábados)

Que diga:

Por prestación de otros servicios (vaciado de restos, deposito de restos/cenizas, limpieza, obras, mantenimiento, etc.) realizados a petición de los interesados y previa autorización del Ayuntamiento en panteones propiedad de particulares y/o sepulturas sujetas a concesión. (en días laborables excepto sábados)

**4.- Tasa por el servicio mancomunado de recogida, transporte y eliminación de residuos sólidos urbanos. Incrementar en un 0,54 %.**

**5.- Tasa por prestación del servicio de ayuda a domicilio. MANTENER lo vigente.**

**6.- Tasa por prestación de servicios en el "HORNO ZUBIATE" (visitas guiadas y talleres) MANTENER lo vigente.**

**5.- TASA POR EL SERVICIO DEL MUSEO-ESKOLA MUNICIPAL ELIMINAR**

**6.- Tasa por prestación de servicios a aspirantes a plazas convocadas por el Ayuntamiento. MANTENER lo vigente.**

**ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR LA UTILIZACION PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PUBLICO LOCAL**

**Incrementar todas las tasas en un 2,7%**

En el anexo 4 incluir: i) Uso privativo de una plaza de garaje del polideportivo Eskoriatzako Manuel Muñoz: 57 € /mes

ESKU03bb7e90-f03b-4714-8c00-708050f958c7

**Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

**ORDENANZA REGULADORA DEL PRECIO PÚBLICO POR UTILIZACIÓN DE BIENES MUNICIPALES.**

Incrementar 2,7%

Incluir nueva tarifa: Carpa 3 x3 unidad: 60 € + 2,7%

**PRECIO PUBLICO POR LA ASISTENCIA A ACTOS Y/O ACTIVIDADES SOCIO CULTURALES ORGANIZADOS POR EL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**

| | |
|---|---|
| Espectaculos infantiles organizados en Zaldibar antzokia 4€ | |
| Espectáculos adultos organizados en Zaldibar antzokia 6€ | |

**2025/10/09**
**Ez Ohiko bilkura**
Pleno Extrardinario

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2025IAKU0011-Osoko bilkurako akta ELE2/Acta del Pleno ELE2 (ESKORIATZAKO UDALA |
|---|---|

**Digitalki sinatua:**

eskoriatzako udala

**MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN**
**Idazkari-kontuhartzailea**
**Data:** 2025/11/27 18:27:27

**Digitalki sinatua:**

eskoriatzako udala

**EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA**
**Alkatea**
**Data:** 2025/11/27 18:43:27